

Getxo >MEETING<



Ekainak 15 **Idea berriak lortzeko gakoak**

Sormen-prozesua nola funtzionatzen duen ezagutzea funtsezkoa da ekiten zabiltzanean. Izan ere, ideiak izatea eta horiek gauzatzea barne hartzen duen prozesua da. Batzuetan hobeto ulertu behar dituzun oztopoak agertzen dira bide horretan.

Zertaz ari gara?

- Sormen-prozesuko etapak irudikatu behar dira haiek hobeto zehaztu eta kudeatu ahal izateko.
- Oso argiak edo atseginak ez diren faseak ulertu behar dira, hobeto onartzeko.
- Jakin behar dut noiz eta nola daukadan sormen handiagoa. Nire sormena sustatzen edo oztopatzen duten barne- nahiz kanpo-baldintzak ulertu behar ditut.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140
getxolan@getxo.eus • www.getxo.eus/promocion-economica/

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:



Hobeto lan egiten ikasteko, ikasi behar dut nola eta zein inguruabarretan egiten dudan hobeto aurrera.

Lan egitea sortzea da ere bai. Hona hemen saio honetan ikasitako gako batzuk:

- Jakin behar dut noiz aldentu behar naizen zeregin batetik eta noiz ekin behar diodan berriz.
- Hiru B-ak (Bus, Bed eta Bath) banakako ideiak bururatzen zaizkigun tokiei dagozkie. Bus (autobusa: mugimendua, leku-aldaketa); Bed (ohea: atsedena, ametsaren hasierako edo amaierako faseak); eta Bath (Bainua: urarekin kontaktua).
- Bakardade-egoeretan eta burua zereginetik aldentuta dagoenean, beste deskuidurik ez daukagunean, espazio hutsa zabaltzen da, loturarik gabeko bi ideien arteko erlazioa bilatzera bultzatzen gaituena. Sinapsi neuronalagatik gertatzen da hori. Sormenaren faserik nabariena da.
- Itxuraz ezer gertatzen ez den faseetan ere gertatzen da sormena. Horrek ez dauka zertan esan nahi pertsona hori blokeatuta dagoenik. Batzuetan ideia sortzeko bidean dago, besterik ez.

Ideiarik ez izatea bezain deserosoa da ideia gehiegi izatea. Nola kudeatu daiteke ideien falta edo gehiegikeria?

Ideiarik ez baldin badaukat:

- Paseatzea edo jarduera fisikoa egitea.
- Arte eta kultura: Musika, zinema, irakurketa, arte plastikoak.
- Eskuekin lan egitea.
- Naturekin lan egitea.
- Ideiak izan nahi ditudan gaiari buruz irakurtzea, inspirazioa bilatzeko.
- Mugikorretik aldentzea.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140
getxolan@getxo.eus • www.getxo.eus/promocion-economica/

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:



Idea gehiegi badituz:

- Beste pertsona batzuekin hitz egitea.
- Orain egingo ez dituzunak alde batera uztea.
- Koaderno batean idaztea eta garatzea: zure ideien poltsa.
- Ideiak baztertzeko balio dizuten ebaluazio-irizpideak ezartzea.
- Pentsatu ea ideia guztiak orain egin behar ote dituzun, denak zeuk egin behar ote dituzun eta bakarrik egitekoak ote diren.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140
getxolan@getxo.eus • www.getxo.eus/promocion-economica/

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:

